



Aitatxo eta amatxo maiteak:

Biei idatzi nahi dizuet, baina ez dakit nola egin biei batera, zer esan! Egia borobila, hauxe: maite zaituztedala, bizitza zor dizuedala, biek egindako ohandze lanean eman zenidatela bizitza eta horri esker dudala nire burua ezagutzeko aukera...

Hara, hasi zarete marmarka, zer gauzak esaten ditudan eta zer gauzak entzun behar dituzuen eta hau eta beste. Baina hala da! Sexua izan da nire bizitzaren hastapena eta esker onez nauzue. Etxean hitz tabua da sexua, ordea. Zuek sexurik izan zenutenik aitortu eta horregatik gaudela gu zazpiak hemen aipatzea ba gustu txarrekoa, omen da... Hara! Gorritu egin zara ama! Beno, ziur naiz sexuaz gozatu duzula zure bizitzan, ez baduzu ezer inoiz aitatu ere, hori da gutxienez nire fantasia, kalean modosita izanagatik ohean katamotz hutsa zarela, pasatu naiz? Bale, barkatu amatxo, emadazu muxu bat, eta zu aita, arren!, ez zaitzez isilik gelditu orain, babes nazazu, psikiatra izan zarela eta jendeari lagundu izan diozula sexu gaietan ere! Ez zaizue gustatu esan dizuedana, beharbada? Aspalditik horrela hitz egin nahi nizuen, ordea. Ai Jesus!, diozu ama. Ai, ai, ai, zer egin ote dut gaizki? Eta orain irribarre egin didazue, eskerrak, behingoz zuen pareko jarri nauzue. Beno, ba hori zuei esker bizi naizela, jaiotza eman eta hazi eta hezi ninduzuenez. Andre fina naiz, ama, bai, entzuten ari natzaizu, ez duzu ahopean hitz egin beharrik eta zintzoa naizela, asko balio dudala, asko dudala emateko... bai aita, bai, hori ere bai, ai, gurasoek bakarrik esaten dakizkizuen gauzak. Jo, hunkitu egin nauzue. Begi gorritu nauzue.

Dena den, ez da dena ona izan, hori ere badakizue. Bai, jakitun naiz ez zela erraza izango gu aurrera ateratzea, asko ginen, baina haur nintzenean ezin nuen horrelako ezer ikusi eta sufritu egin nuen: zuek jarritako gotorleku eta zentzugabeko perfekzio itogarrian bizitzea kaltebera gertatu zitzaidan. Ama, ez zen ona izan horrenbeste eskatzea, ez, ama, ez, ezeeeeetz! "Haurrei eskatu ezkeru ematen dute" diozu, zurekin bat nator, baina gehiegi eskatu zenuen nigandik, ez nuen dena bikain atera beharrik eta zure onespina eta nirekin harrotzea behar nuen, ez beti "gehiago egin dezakezu" erretolika; bai, badakit, asmo onez egin zenuen dena eta nire onerako. Kaltegarria suertatu zen, ordea, oi ez, ama, ez dizut ezer leporatu nahi, ez hasi negarrez, ez dut hau epaia izaterik nahi, mesedez, nire bihotza ireki besterik ez dut egin nahi, behar dut, arren, entzudazue: nor naizen eta nondik natorren jakingo badut, zuekin eta ditudan oroitzapenekin baketuko banaiz, zuek gehiago ezagutu behar zaituztet. Hori dut gaur helburuetako bat eta maite zaituztedala aitortzea bestea.

Aita, etxeko giltzak ez edukitzeak ez zuen zentzurik 18 urterekin, hitzekoa nintzen. Lagunekin egotea galarazteak ez zizkidan arriskuak eta drogak uxatuko, horiek kalean zeuden, baina lagunak uxatu zizkidan. Eta inorekin ateratzeko ausardia kendu zenidan ere. Zure beldurrek ito ninduten, zure garrasiek, zure mugek, psikiatrikoko errealitatea eta nire kaleko errealitatea nahasteak...



Aitatxo, ohartu ote zinen sekula zure oihuek zenbaterako urratu zuten nire bihotz maitekor eta sentibera?

Zure musu eta laztanak behar nituen. Itsasoan lasai izaten zineneko egunak ziren pozgarrienak eta horrela egotea nahiko nukeen bizitza osoan, soseguz, pozik, bizitzaz disfrutatuz. Gurekin gozatuz. Lan gehiegi egiten zenuen, aldiz, eta estresa zenuen jaun eta nagusi. Nik behintzat ezingo nuke lan erritmo hori jarraitu gaur egun, hori

tristuraz diot, umorea ihartu zizulako lan estresak. Pena dut zu gehiago eta gertuagotik ez ezagutu izana, aita. Eta ama, zure mesfidantzak eta sentimenduak ezin azaleratuak kikildu egin ninduen andre bezala. Ez, ez dira gure zoro-haizeak eta ez, ez dira mespretxatu beharreko kontuak. Markatu gintuzuen eta guda bat baino gehiago bizitu genuen etxean zuekin, horrela deskribatu dezaket batzuetan egiten zeniguten galdeketa errukigabea eta gutxiespenekoa, abentura eder piloa bizitu dudala onartu behar badut ere.

Zer esan, jo, negarrez utzi zaituztet, eta ni ere negarrez hasiko naiz, ez nuen hori nahi, benetan, maite nauzuela ziur baitakit. Nik ere maite zaituztet. Gehiago ezagutu nahi izango zintuzketedan, hori nire arrangura. Mesedez, ama, emadazu aukera hori, oraindik ere bizirik zaitugunez, esan nor zaren, nolakoa zaren; eta zuk aita, zerutik emadazu behar dudana ametsetan edo otoitzean, ezinbestean zurekin izan naitekeen une bakarretan. Ezin naiteke pintxo bat hartzera joan zurekin dagoeneko, aita, ni ere zeruratutakoan ez bada. Ama, aita, bien beharra dut, bizirik zein hilik, zuena bainaiz eta zuena izango bainaiz nire buruarena adina. Ze esaten ari naiz! Ba bai, egia!

Hara, orain biok elkarri begira ikus zaitzaketet, zoriontsu, dirdira darizue bie. Niri begira ondoren, pozik ere. Hau bai bihotz betekada, eskerrik asko horrenbeste maitatu izanagatik. Gutun honek bidea egiten lagun diezadala nire buruan sakontzen, covid garai honetan -hau ez dizuet orain arte aitortu-, noraezean amilera baten ertzean ikusi nituelako nire oin punttak eta nire begirada, itsaso-labarreko arroketan finko. Ez nuen bizitzen jarraitu nahi, zertarako. Zuen ahotsaren burrunba entzun nuen orduan, ez zeundeten hor, baina nirekin zeundetela sumatu nuen barru-barruan. Lurrean eseri nintzen burrunba horiek gaineratua eta burua belaun artean makur makur jarri nuenean, bizitzari eustek merezi zuela nabaritu nuen. Lurraren usain hezeak, kresalak... naturakoa nintzela ulertzeak egin zuen gainerakoa. Beraz, gutun hau bera dut aurrera egiteko nire indarguneen zati. Nire buruak nolatan amaitu zuen labar batean bere buruaz beste egiteko gogoarekin neure egin behar dut, baina baita aldi berean maitasun istorio baten parte naizela onartzea ere.

Hilerrian bezain isilik gelditu zarete niri begirunez entzuten. Zuena bai marka. Isiltasun hau lagun zait, niri osatzeko astia eman nahi didazueta ulertzen baitut horrekin. Ni bai nagoela hunkitua orain, nigatik eta nirekin ari baitzarete sufritzen. Idazten jarraituko dut, on egiten baitit barruan ditudan hodei beltzak astintzeak. Aitatxo, amatxo, maite zaituztet eta eutsi nirekin, arren. *Jasone.*

B e r r i z   i d a t z i k o   d i z u e t